

SAN JOSE UDAL HILERRIKO ERRAUTS-KUTXATILEN ZEIN ERRAUTS-KOLUNBARIOETARAKO KUTXATILA-EUSKARRIEZ ETA HILARRIEZ OSATUTAKO MULTZOEN SALMENTAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

12. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Arau honetan ezarritako prezio publikoak errauts-kutxatila zein errauts-kolunbarioetarako kutxatila-euskarriez eta hilarriez osatutako multzoak erosten dituztenek ordaindu beharko dituzte.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

3. artikulua.- Prezioa Udalaren Diruzaintzan ordainduko da. Errauts-kutxatila zein kutxatila-euskarriez eta hilarriez osatutako multzoak prezioa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu eta gero emanen zaizkie erosleei. Justifikaturik badago, prezio publikoa multzoa eman eta gero egindako hileko likidazioetan jasotzen ahalko da.

Tarifak

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- ERRAUTS-KUTXATILEN SALMENTA:	
- Mandalay kobrezko errauts-kutxatila	45,90 euro
- Kutxatila-euskarria eta hilarria (multzoa)	204,00 euro